

## 1.- GASTEIZKO UDALAREN LANKIDETZA 2003. URTEAN: IKUSPEGI OROKORRA

### 1.1.- ZEREGINA ETA HELBURU ESTRATEGIKOAK

Gasteizko Udalak garapenerako ematen duen laguntza kudeatzea da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina. Izan ere, aspalditxo erabaki zuen udalak bere aurrekontuen % 1 herrialderik txiroenei garapenean laguntzeko eta gasteiztarren artean haienganako elkartasuna sustatzeko baliatzea.

Aurrekontu partida horren kudeaketaz harago, helburu hauek ditu Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak:

- Gasteizko giza talde eta G-GKEek esku hartzen duteneko elkartasun eta garapen jardueretarako laguntza ematea.
- Garatze bidean dauden herrialdeetako garapen-esperientzietan laguntzea, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik, hartara lekuan lekuko erakunde demokratikoak eta herritarren parte-hartzea sendotzeko.
- Gasteizko G-GKEen eta garatze bidean dauden herrialdeetakoen arteko lankidetzak eta elkartasun loturak sendotzeko aukera eskaintzea.
- Gasteizko Udalak esku hartzen dueneko lankidetzak proiektu eta programen kalitatea hobetzea.

### 1.2.- PROGRAMAK: DATU OROKORRAK

#### • 1.2.1.- Garapenean laguntzeko aurrekontu partida

Gasteizko Udalak hasiera batean garapenean laguntzera bideratutako aurrekontua, 2003. urtean, **2.103.250 €**koa izan zen; hain zuzen ere, udalak onetsitako aurrekontu osoaren % 1,0<sup>1</sup>. Gerora, handitu egin zen aurrekontu hori, 60.000 €-ko aparteko ekarpena egin zelarik Irakera giza laguntza bidaltzeko.

Aurrekontu hori kudeatzen duen administrazio-egitura Garapenean Laguntzeko Zerbitzua da –bi teknikari-lanpostuk osatua–, zein Lehendakaritza Sailaren menpe baitago organikoki.

Kapituluak	Onartutako aurrekontua
<b>II. kapitulua</b> (kanpoko zerbitzuak)	58.000 €
<b>IV. kapitulua</b> (diru laguntzak)	
Hasiera batean onetsia	2.050.250 €
Irakerako laguntza	60.000 €
<b>Guztira</b>	<b>2.168.250 €</b>

<sup>1</sup> Aurrekontuetan onetsitako ohiko diru-sarreraren gainean (diru-sarreraren I-V kapituluak) kalkulaturako ehunekoa.

Hori kontuan izanik, hona aurrekontuak gauzatzeari buruzko datuak.

	<b>2003ko aurrekontua</b>	<b>Gauzatua</b>	<b>%</b>
II. kapitulua	58.000 €	56.362,52 €	97,2%
IV. kapitulua	2.110.250 €	2.107.384 €	99,9%
<b>Guztira</b>	<b>2.168.250 €</b>	<b>2.163.746,33 €</b>	<b>99,8%</b>

• **1.2.2.- Jarduera-arloak**

Gasteizko Udalaren lankidetzak –onartzen diren deialdi eta hitzarmenen harira– proiektuak finantzatzera mugatzen dela pentsa baliteke ere, esan beharra dago Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina proiektuak bideratzen laguntzeaz harago ere iristen dela.

- Alde batetik, bi esparru osagarri eta aldi berean berezitan esku hartzen du zerbitzuak:
- lankidetzak (zentzurik zabalenean, hots, garatze bidean dauden herrialdeetarako garapenerako laguntza, giza laguntza nahiz giza eskubideak babesteko jardueretarako laguntza),
  - sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza (zentzurik zabalenean, hots, herrialde horietako herriekiko elkartasuna sustatzen duten esku hartzeak).

Bestetik, berriz, urtean nahiz aurreko urteetan onartutako proiektuen jarraipenarekin du zerikusia Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak burutzen duen lanaren parte handi batek, baita, neurri txikiagoan bada ere, horien ebaluazioarekin ere.

Planifikazioari begira, hiru arlotan dago banatuta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren lana:

- **Lankidetzak:** garapenean laguntzeko proiektuetara (giza laguntzarako proiektuak barne) bideratutako urteko aurrekontua baliatuz ematen diren diru laguntzak onartu eta finantzatzea.
- **Sentsibilizazioa:** sentsibilizazio jardueretara nahiz bestelako informazio eta zabal-kunde jardueretara bideratutako urteko aurrekontua baliatuz ematen diren diru laguntzak onartu eta finantzatzea.
- **Identifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa:** aurkeztu eta onartutako proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluaziorako hainbat lan (bai lankidetzaren arloan, bai sentsibilizazioarenean).

Hiru arlo horien arabera dago egituratuta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2003ko oroit-idazki hau, bakoitzaren baitan azpi-programak eta jarduerak zehazten direlarik. Azken atalean, berriz, 2003. urtean kudeatutako lankidetzarako aurrekontua laburbiltzen da.


<p><b>Nolanahi ere, 2003ko gertakarien artetik, hauek nabarmen daitezke:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>- hainbat urterako proiektuetarako bigarren deialdia egin zen,</li><li>- garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren alorreko “Egin bira</li></ul>
---

lurbirari” programa abian jarri zen, Gasteizen diharduten hogeita hiru G-GKEren parte-hartzearekin,

- “Saharaz beheitik Afrikarako gizaldeko ekintzak” izeneko aparteko deialdia egin zen.

Halaber, aipatzekoa da prestakuntza-aldiak egin dituztela Ertameriketako hainbat teknikariek Gasteizko Udaleko zerbitzu teknikoetan, hainbat arlotan, hala nola uraren kudeaketa, gizarte etxeak, lurralde antolakuntza eta ingurumenaren kudeaketa.

Aurrekontuari dagokionez arlo bakoitzak zenbateko pisua duen erakusten du ondoko grafikoak:



### • 1.2.3.- Diru laguntzen kudeaketa


Lankidetzarako aurrekontua gehienbat diru laguntzetara bideratzen denez, zilegi da galdetzea zein diren diru laguntza mota desberdinak edo berariazko programak, zein arlori dagozkien, zeinek kudeatzen dituen eta zein prozeduraren bitartez esleitzen diren.

2003an kudeatutako diru laguntza programen zerrenda eta bakoitzera bideratutako diru-kopuruak ageri dira ondoko laukian:


<b>Lankidetzeta-programak</b>	
Lankidetzarako urteko deialdia	245.000,00 €
Hainbat urterakoak (2000ko deialdia)	572.680,77 €
Nejapako udalarekiko hitzarmena	143.000,00 €
Euskal Fondoarekiko hitzarmena	209.200,00 €
Cogoko osasun proiekturako hitzarmena	59.800,70 €
Sahararako hitzarmena	180.000,00 €
Giza laguntzarako deialdia	163.000,00 €
Aparteko deialdia	331.023,81 €
<b>Sentsibilizazio-programak</b>	
Sentsibilizatorako deialdia	150.000,00 €
Hitzarmena, G-GKEen Koordinatzailearekin:	11.787,31 €

“Mírame”	
Hitzarmena, G-GKEen Koordinatzailearekin: “Egin bira lurbirari”	25.000,00 €
Hitzarmena, SETEM eta G-GKEen Koordinatzailearekin: “Egin bira lurbirari” II	16.891,22 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.107.383,81 €</b>

Zehaztutako hiru lankidetzatarlo handien arteko banaketa (lankidetzatarlo, larrialdiko giza laguntza eta garapenerako hezkuntza) ageri da ondoko grafikoan:



Ondoko grafikoan ageri denez, G-GKEek kudeatu zuten 2003. urtean diru laguntzen % 83, Euskal Fondoak, berriz, % 10, eta Garapenerako Laguntzeko Zerbitzuak % 7 (Nejapako Udaleko alkatetzarekiko zuzeneko hitzarmenaren baitan).



Zuzenean	144.890,00 €
Euskal Fondoak	209.200,00 €
G-GKEek	1.756.160,00 €


Bestalde, ondoko grafikoan ageri denez, lankidetzarako diru laguntzen % 69 deialdien bitartez kudeatzen dira, eta % 31 hitzarmenen bitartez. Gogora dezagun lankidetzatarlo hitzarmenak onartzeko oinarrietan berariaz adierazten dela ezin dela diru laguntzen herena baino gehiago bideratu hitzarmenetara.



### 1.3.- GASTEIZKO UDALAREN LANKIDETZAREN DATU NAGUSIAK


- **1.3.1.- Lankidetzaren eta giza laguntza**

Datu deigarria da, 2003. urteari gagozkiola, giza laguntzek hartu duten lekua (garatze bidean dauden herrialdeetako jardueraren guztien % 29). Bi arrazoi nagusi daude: batetik, Irakera bidalitako giza laguntza, eta, bestetik, Saharaz beheko Afrikarako giza laguntzetarako urte bukaera aldean egindako aparteko deialdia. Kalkuluak egiterakoan, "giza laguntzak, larrialdietako laguntzak eta giza eskubideak babesteko laguntzak" emateko deialdikoak nahiz aparteko deialdikoak jo ditugu giza laguntzat, baita Saharako programaren baitako jarduerak ere, zein, bistan denez, giza laguntzak baitira, hala nola "Osasuna Saharako herriarentzat" kirurgia proiektua.




- **1.3.2.- Geografi eremuen arabera banaketa**

Saharaz beheko Afrikarako giza laguntzetarako aparteko deialdiaren ondorioz, leku handiagoa hartu zuen Afrikaren diru laguntzen banaketan. Hala ere, aurrekoetan bezala, Ertameriketara eta Karibera bideratu zen lankidetzaren partetik handiena. Horren argigarri dira hainbat urterako proiektuetarako deialdiaren banaketa eta Euskal Fondoaren proiektuak inguru horretan bildu izana.



• **1.3.3.- Herrialdeen araberako banaketa**

Dudarik gabe deialdien ondorioz, sakabanaketa handia ageri da; izan ere, 22 herrialdetan esku hartzen da. Hainbat urterako proiektuei zor zaie Nikaraguak hain leku handia hartzea diru laguntzen banaketan. RASDaren kasuan (Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuak), berriz, RASDaren Lagunen Elkartearikiko hitzarmenari zor zaio hori. Orobat ageri dira Saharaz beheko Afrikako herrialdeak, aski kopuru handiekin, aparteko deialdiaren ondorioz.



Herrialdea	Diru laguntza
Errumania	5.000,00 €
Nepal	8.000,00 €
Etiopia	12.000,00 €
Indonesia	23.500,00 €
Togo	27.900,00 €
Ginea	28.400,00 €

Honduras	28.400,00 €
Kolonia	32.070,00 €
Peru	49.300,00 €
Ekuatore Ginea	59.800,70 €
Irak	60.000,00 €
Sudan	61.396,65 €
Burundi	70.681,36 €
Ekuador	72.215,02 €

Boli Kosta	85.945,80 €
Txile	119.738,64 €
Kuba	146.500,00 €
Kongoko E.D.	150.000,00 €
Guatemala	163.994,39 €
El Salvador	170.500,00 €
RASD	178.530,00 €
Nikaragua	324.516,02 €

## 2.- LANKIDETZA PROGRAMA

Deialdi eta hitzarmenen harira, hainbat azpiprogramatan banatzen da lankidetzaren arloa. Horietako bakoitzari buruzko oinarriko informazioa eskaintzen da ondoren; azken atalean, berriz, datu orokorrak bilduko ditugu.

### 2.1.- Diru laguntza deialdiak

#### • 2.1.1.- Lankidetzarako urteko deialdia

Deialdi horretara bideratutako diru-kopurua murriztu egin zen 2000.az geroztik, urte hartan ebatzitako hainbat urterako proiektuetarako deialdiaren pisua zela eta (ikus aurrerago). Hartara, era askotako jardura txikietarako laguntzak –gehienez ere 36.000 €– emateko aukera eskaintzen duen diru laguntza programa bihurtu da urteko deialdia. Hala ere, bi lehentasun daude ezarrita: proiektuetan Gasteizko jendeak jardutea eta horietan genero-ikuspegia aintzat hartzea.

Proiektuak aukeratzeko prozesuan deialdiko oinarrietan zehaztutako balorazio irizpideak hartzen dira kontuan. Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak hitzarmena egin zuen Hegoarekin (EHUaren Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua), aurkeztutako proiektuen lehen ebaluazioa egin zezan.

Aurkeztutako eskariak eta onartutako diru laguntzak alderatzen dira ondoko laukian:

Eskaria egin zuten G-GKEak	Aukeratutako proiektuak	Eskatutakoa, guztira	Aurrekontua, guztira	Aurrekontua / eskatutakoa
21	12	612.917,31 €	245.000 €	% 40

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

Kodea	Proiektua	Herrialdea	G-GKE	Diru laguntza
03-A-01-CUB	Zurezko etxebizitzetan teilatuak jartzea (VII. fasea)	Kuba	Euskadi-Kuba elkarte	25.000,00 €
100 etxebizitzaren teilatuak berritzea, duela hainbat urte hitzartutako protokoloari jarraiki				
03-A-02-ECU	Atínate Huasi prestakuntza zentroko mekanika lantegia tresna eta erremintaz hornitzea	Ekvador	Jóvenes del Tercer Mundo	18.000,00 €
Injekzio-motorrak neurtzeko tresna eta erremintak erostea, prestakuntza praktikoa osatu ahal izateko. Beren zerbitzuak eskainiko dizkie lantegiak herritarrei, eta mekanika lantegia mantentzeko baliatuko diren diru-sarrerak izango ditu hartara.				
03-A-03-ELS	Emakumeen osasun integrala zaintzea eta bertako kudeaketa komunitarioa indartzea	El Salvador	Mugen Gainetik	27.500,00 €
25 emakume aitzindariaren prestakuntza. 3.000 emakumerentzako hainbat osasun zerbitzu, Isis Dagmar sorospen zentroan, brigada medikoen bitartez. Isis Dagmar zentroa handitzeko obrak.				
03-A-04-GUI	Etxebizitzak berreraikitzea Macentan (II. fasea)	Ginea	Alboan	28.400,00 €
Errefuxiatu familientzako 150 etxebizitzaren teilatua berreraikitzea Balizea eta Bofossou-n (Macenta probintzia).				
03-A-05-HON	Edateko ura kudeatu eta kalitatea hobetzea, 24 herritan	Honduras	Hirugarren Mundua ta Bakea fundazioa	28.400,00 €
Hauek hartzen ditu bere baitan proiektuak: uraren sistema eta saneamendua hobetzea, prestakuntza-				



jarduerak, komunitatearen antolakuntza, eta erakundeekin hitzarmenak egitea, zerbitzu horiek onik zaindu ditzaten, modu iraunkorrean.				
03-A-06-IDS	Gianyar eta Bangli barrutietako elbarrien gaineko azterketa egitea, bertatik bertara.	Indonesia	Kupu-Kupu Niños de Bali	17.500,00 €
Elbarrien egoerari buruzko diagnostikoa egitea Baliko probintzian, elbarriekin berekin eta senitartekoekin inkestak eta elkarrizketak eginez.				
03-A-07-NIC	Herritarren osasuna sustatzea, Bluefields-eko bikario-barrutian	Nikaragua	Manos Unidas	18.000,00 €
Herritarrentzako osasun programa, Siunako 78 herritan: sustatzaileen prestakuntzarako jarduerak, botika-kutxak hornitzea, osasunerako hezkuntzarako programa bideratzea 35 eskolatan, lantegiak (medikuntza naturala, nutrizioari buruzko hezkuntza), osasunaren alorreko lanaren koordinazioa.				
03-A-08-PER	Garapenerako elkartu eta antolatutako emakumeak	Peru	ADECO	24.400,00 €
Bertako udalaren eta emakume elkarte baten artean bideratutako programa, emakumeei zuzendutako hainbat jarduera aurreikusten dituena: toki garapenari buruzko jardunaldia, emakume aitzindariak prestatzeko lantegia, negozioak eratzeko gaitzea, autoestimuaeren alorreko prestakuntza.				
03-A-09-PER	Emakumeak prestatu eta lanean jartzea, "El Indio" giza asentamenduan	Peru	ADIPE Araba	4.000,00 €
50 emakumerentzako prestakuntza programa: alfabetatzeko eta oinarrizko josteta ikasteko bina lantegi, makina industrialak erabiltzen eta patroï industrialak egiten ikasteko lantegi bana, mekanografia eta enpresa txikien kudeaketarako ikastaroak. Emakume talde batek enpresa txiki bat abian jarri ahal izatea espero da.				
03-A-10-PER	Emakumeentzako bigarren hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzea, Yungay-n	Peru	SERSO San Viator	20.900,00 €
Eskola txiki bat eraikitzea Yungay-n, 35 bat gaztek bigarren zikloko ikasketak egiterik izan dezaten, barnetegian.				
03-A-11-RUM	Vitoria Etxerako baratzea, Pitestin	Errumania	Compartir	5.000,00 €
Lanabesak eskuratu eta lur sail bat lantzea, barazki eta fruituak egiteko, Vitoria Etxeko (umezurztegietatik ateratako gazteentzako harrera etxea) janari premiari neurri batean erantzuteko. Orobat izango da baratzea etxeko gazteen prestakuntzarako bide eta urtero Gasteiztik joaten diren boluntarioek lan egiteko lekua.				
03-A-12-TOG	Itsas eskualdeko jarduera sanitario eta sozio-ekonomikoetarako laguntza	Togo	Arabako Gurutze Gorria	27.900,00 €
Amentzako beste hiru klub irekitzea du helburu proiektuak (batez beste, bakoitzeko 40 emakume). Horrek berekin bakar auzoetan sentsibilizazio jarduerak egitea, gaixotasunen prebentziorako jardueretan gaitzea, alea ehotzeko bederatzi errota abian jartzea eta "kutxa solidario" bat nahiz txandakako funts bat sortzea.				

### • 2.1.2.- Hainbat urterako proiektuetarako deialdia

2000. urtean onetsi eta ebatzi zen "hainbat urterako proiektuak partez finantzatzeko deialdia", eta, horren ondorioz, G-GKEek kudeatutako hiruzpalau urterako bederatzi proiektu ditu Gasteizko Udalak.

2001ean hasitako bederatzi proiektuetatik seirako egin ziren ekarpenak 2003ko aurrekontuen kontura. Gainerakoak 2003ko amaieran edo 2004ko hasieran bukatu ziren.

Kodea	Proiektua	Herrialdea	G-GKE	Euroak
03-P-01-CHI	Garapena, Curarrehue-ko komunan	Txile	SETEM	119.738,64 €
03-P-02-ECU	Oinarrizko osasun sistema, guztiontzat	Ekuador	ADSI	54.215,02 €

			fundazioa	
03-P-04-GUA	Garapen iraunkorra, bake hitzarmenen haritik nekazariei esleitutako lurretan	Guatemala	PROCLADE	119.217,09 €
03-P-06-NIC	"Etokizuna hobetuz", gizon-emakumeen berdintasunaren alorreko programa, Waslalan	Nikaragua	Medicus Mundi	39.262,20 €
03-P-07-NIC	Emakumeek udalerrriaren eta komunitatearen garapenean duten parte-hartzea sendotzea	Nikaragua	Mugarik Gabe	120.045,40 €
03-P-09-NIC	Osasun-garapena, Río San Juan departamentuan	Nikaragua	Solidaridad Internacional	120.202,42 €
<b>GUZTIRA</b>				<b>572.680,77 €</b>

• **2.1.3.- Garapenean laguntzeko proiektuak identifikatu eta taxutzeko 2002ko deialdiaren ebazpena.**

2003ko martxoaren 14an ebatzi zen hainbat urterako lankidetzako proiektuak taxutzeko diru laguntzetarako deialdia, eta, hain zuzen ere, zortzi diru laguntza eman ziren<sup>2</sup>.

GKE	IZENBURUA	HERRIALDEA	DIRU LAGUNTZA
Hirugarren Mundua ta Bakea / PTM	Ingurumena onbideratzea Kiska'p ibaiaren azpi-arroko herrietan	Guatemala	7.700,00 €
Manuel Iradier elkarte	Cogo-ko barrutiaren garapen orokorra	Ekvatore Ginea	6.400,00 €
Solidaridad Internacional	Antolakuntza sendotzea, herri hezkuntza eta genero hezkuntza Usulutango nekazari-herrietan	El Salvador	5.000,00 €
Arabako Medicus Mundi	Edateko ura eta ingurumen onbideratze iraunkorra nekazari-herrietan	Peru	7.000,00 €
SETEM	Emakumeen protagonismo publikoa sustatzea herrietan	Kolonbia	6.900,00 €
Mugarik Gabe	Larreynaga udalerrian gobernagarritasuna sendotzea, genero ikuspegia baliatuz	Nikaragua	7.700,00 €
SERSO San Viator	Jutiapako nekazari-herrietan etxebizitzak eraiki, bizilekuak hobetu eta komunak jartzeko programa integrala	Honduras	1.600,00 €
Paz y Solidaridad	Germán Busch kantoiaeren lurralde antolakuntzarako laguntza tekniko, prestakuntza eta gaikuntza	Bolivia	7.700,00 €

Sei hilabeteko epea izan zuten G-GKEek eta horien lekuan lekuko proiektuak aurreikusitako proiektuak identifikatu eta taxutzeko beharrezko ziren jarduerak eta azterketa teknikoak egiteko.

Hainbat urterako proiektuetarako diru laguntzak emateko deialdiarekin uztartu zelarik deialdi hori, deialdi berri horretara aurkeztu ahal izan ziren taxututako proiektuak.

<sup>2</sup> Diru laguntza horiek 2002ko aurrekontuaren kontura dira, eta, beraz, ez dira ageri 2003ko datuetan islatuta.

- **2.1.4.- Garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuetarako 2003ko deialdia.**

Esparru lokaleko proiektu kopuru mugatu bat aukeratzea du azken helburu hainbat urterako lankidetzako proiektuetarako deialdiak. Hiruzpalau urtez luzatuko diren proiektuak izaki, garapenean eragin handiagoa izatea espero da. Gainera, zorroztasun handiagoz identifikatuta daude proiektu horiek, diru ekarpen handiagoak egiten dira eta orobat bilatzen dira tokian tokiko sostenguak, bideragarritasunaren eta iraunkortasunaren berme. Orobat espero da, epe luzeagoan garatzen diren aldetik, gasteiztarrei zuzendutako informazioa eta zabalkundea hobeto programatu ahal izateko aukera ematea. Azkenik, bistan da epe ertaineko proiektu kopuru mugatu bat edukitzeak erraztu egiten duela Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren kudeaketa.

Hauek dira deialdiaren ezaugarri nagusiak:

- proiektuen iraupena: hiruzpalau urte,
- bertara eta proiektuetara bideratzen diren diru-kopuruak:

Aurrekontu ekitaldia	Diru laguntzen zenbatekoa, gehienez
2004ko aurrekontua	1.000.000 €
2005eko aurrekontua	1.000.000 €
2006ko aurrekontua	1.000.000 €
2007ko aurrekontua	1.000.000 €
Proiektu bakoitzeko, urtean	120.000 €

- finkatutako lehentasun sektorialak: oinarrizko azpiegitura eta zerbitzuak, tokiko ekonomiaren garapena, oinarrizko gizarte zerbitzuak, ingurumena, lurralde antolakuntza.
- proiektuetan genero-ikuspegia aintzat hartzeari emandako lehentasuna.
- tokian tokiko hautetsi-erakundeek proiektuetan parte hartzeari ematen zaion lehentasuna; izan ere, lankidetzako deszentralizatuaren oinarrizko ezaugarritzat jotzen da erakunde horien parte-hartzea, tokiko gizarte eragileenarekin batera.

2004. urtearen hasiera aldean ebatziko da deialdi hori.

- **2.1.5.- Giza laguntzak, larrialdietako laguntzak eta giza eskubideak babesteko laguntzak emateko deialdia**

Bereziki, lankidetzako proiektuak direla-eta udalak nolabaiteko presentzia duen lekuetan izandako premiei erantzuten lagundu zen –larrialdietako jarduerak eta giza laguntza– diru laguntza deialdi publikoaren bitartez. Guztira zortzi proiektu finantzatu ziren: bost Afrikan eta hiru Asian.

Giza eskubideak babesteari dagokionez, Kolonbiarekin zerikusia duten bi programetarako eman zen laguntza: batetik, ohiko den Nazioarteko Bake Brigaden programarako –giza eskubideen defendatzaileei laguntzea–; bestetik, berriz, giza eskubideen zapalkuntza zuzenean jasan duten lau nekazariren Kolonbiatik Parisetako joan-etorriak ordaintzeko, hiri horretan egindako Nazioarteko Iritzi Epaimahaiaren aurrean beren lekukotasunak eman zitzaizkien.

85.000,00 €-ko partida zegoen hasiera batean deialdi horretarako. Gerora, 60.000 € gehiago jarri ziren Irakera larrialdiko laguntza bidaltzeko, eta orobat gehitu zitzaion partida horri Saharaz beheko Afrikarako giza laguntzetarako diru laguntzak emateko aparteko deialdiko soberakina; hartara, guztira, 163.000,00 € eman ziren 2003ko diru laguntza horietan.

### Datu orokorrak

Aurkeztutako proiektu kopurua	Onartutako proiektu kopurua	Eskatutako kopurua, guztira	Emandako kopurua, guztira
12	10	220.768,98 €	163.000,00 €

### Giza laguntzarako proiektuak

**Kodea:** 03-H-01 CDM.

**Proiektua:** Bouakéko (Boli Kosta) Banco eta N'Gattarkró auzoetara janaria helarazteko laguntza.

**Eskatzailea:** SERSO Euskalherria.

**Azalpena:** Premiarik handiena duten pertsona eta familientzako oinarrizko janariak, hurrei eta haurtxoak dituzten amei lehentasuna ematen zaielarik.

**Diru-kopurua:** 7.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-02 IRK.

**Proiektua:** Larrialdiko giza laguntza bidaltzea Irakera.

**Eskatzailea:** Arabako Gurutze Gorria.

**Azalpena:** Mantak, olio eta irina Irakeko gerrak kaltetutako herritarrentzat, batez ere talderik ahulenentzat, hau da, haur, emakume, gaixo eta adinekoentzat, baita ondoko herrialdeetan errefuxiatutakoentzat ere.

**Diru-kopurua:** 60.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-03 ETI.

**Proiektua:** Larrialdiko ekintza, Etiopiako Samre Saharte eta Raya Acebo *weredak* urez eta haziz hornitzeko.

**Eskatzailea:** INTERMON OXFAM.

**Azalpena:** Edateko ura hornitzea, hamar putzu eginez, lehorteak sortutako janari-krisiari aurre egiteko.

**Diru-kopurua:** 12.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-04 RDC.

**Proiektua:** Osasun eta janari laguntza, Kakutyán (Kongoko Errepublika Demokratikoa).

**Eskatzailea:** Gasteizko *Francisco y Soledad* (FRANSOL)

**Azalpena:** Desnutrizioak jotakoentzako osasun eta elikapen laguntza eta txiroentzako botikak, zaintza eta oinarrizko janariak.

**Diru-kopurua:** 15.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-05 COL.

**Proiektua:** Kolonbian giza eskubideen eta lekuz aldatutako komunitateen defendatzaileak babesteko nazioarteko laguntza.

**Eskatzailea:** Nazioarteko Bake Brigadak (PBI) - Gasteiz.

**Azalpena:** Nazioarteko berrogeita hamar begirale Kolonbiako hainbat eskualdetan sakabanatu eta mantentzea, eta trauma psikosoziala oneratzeko.

**Diru-kopurua:** 22.070,00 €

---

**Kodea:** 03-H-06 NEP.

**Proiektua:** Giza laguntza airez garraiatzea.

**Eskatzailea:** Arabako Diabetikoen Elkarte.

**Azalpena:** Lau generadore elektriko, kontrol medikorako tresnak eta botikak helikopteroz garraiatzea, sherpen lurraldeko Lukla herriraino, ospitale bat abian jartzeko hornikuntza gisa.

**Diru-kopurua:** 8.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-07 COL.

**Proiektua:** Kolonbiako Bolivar hegoaldeko nekazari-komunitateetako lekukoei laguntzea.

**Eskatzailea:** Euskadin errefuxiatutako kolonbiarren taldea, BACHUE.

**Azalpena:** Giza eskubideen zapalkuntza zuzenean jasan duten lau nekazariri Kolonbiatik Parisera (Gasteiz bisitatu ondoren) joateko bidaia ordaintzea, hiri horretan egitekoa zen Nazioarteko Iritzi Epaimahaiaren aurrean beren lekukotasunak eman zituzten, Bolivar hegoaldeko bizimoduaz eta erresistentziaz.

**Diru-kopurua:** 10.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-08 IDS.

**Proiektua:** Bali (Indonesia) probintziako haur eta gazte ezindu fisiko nahiz psikikoen familia behartsuentzako janari laguntza eta oinarrizko materialak eta botikak erostea.

**Eskatzailea:** Kupu-Kupu, Niños de Bali.

**Azalpena:** Oinarrizko janariak, lastairak, mantak, botikak eta osasun-materiala, baliabide gutxien dituzten haur eta gazteen familientzat.

**Diru-kopurua:** 6.000,00 €

---

**Kodea:** 03-H-09 SAH.

**Proiektua:** Larrialdiko laguntza, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan izandako uholdeen ondorioz.

**Eskatzailea:** RASDaren Lagunen Elkarte.

**Azalpena:** Euriak hondatutako janari-stockak (irina, garagarra, azukrea eta lekariak) berritzeko laguntza.

**Diru-kopurua:** 7.930,00 €

---

**Kodea:** 03-H-10 RDC.

**Proiektua:** Gerragatik lekuz aldatutakoei oinarrizko laguntza ematea Fiziko lurraldera (Kongoko Errepublika Demokratikoa) itzultzean.

**Eskatzailea:** Asociación Africanista Manuel Iradier.

**Azalpena:** Izandako gerra ugarien ondoren beren jaioterrietara itzuli diren familien artetik aukeratuko 300 behartsuenentzako janaria eta oinarrizko etxeo tresnak.

**Diru-kopurua:** 18.000,00 €

---

• **2.1.6.- Aparteko deialdia: “Saharaz beheitiko Afrikarako gizaldeko ekintzak”**

Hasiera batean aurreikusitako programak egokitzearen ondorioz, aparteko diru laguntza deialdi bat egitea erabaki zen, “Saharaz beheitiko Afrikarako gizaldeko ekintzak” izenburuarekin. Hauek izan ziren deialdiaren ezaugarri nagusiak:

- Apartekoa izan zen, esan nahi baita ez zegoela urteroko programa bihurtzeko asmorik.
- Saharaz beheitiko Afrikara mugatu zen geografia eremua, batetik, eremu horretan ugari direlako premia larriko egoerak eta, bestetik, Gasteizko Udalak lankidetzarako eman ohi dituen laguntzetan eremu horrek duen presentzia txikia konpentsatu nahi zelako.
- Hondamendien biktimei edo aspalditik premia larriko egoeretan daudenei arreta eta babesa emateko ekintzak jo ziren gizaldeko ekintzat, dela gatazka armatuek, dela hondamendi naturalek, dela politika, ekonomia edo ingurunearekin lotutako faktoreek sortutako egoerak izan.
- Gasteizko herritarrak informatu eta sentsibilizatzeko jarduera programa zehatza eskatu zitzaien eskaria egin zuten erakundeei; proiektua gauzatuko zen ingurunea zein zen, egoera zergatik sortu zen eta zein elkartasun modu bidera zitezkeen azaldu beharko zuten horren bitartez.
- Laguntzak gehiegi ez zatikatzeko asmoz egin zen. 350.000 €-ko diru kopurua aurreikusi zen, guztira, deialdirako, eta proiektu bakoitzeko gutxienez 60.000 € eta gehienez 120.000.

Aurkeztutako eskariak eta onetsitako diru laguntzak alderatzen dira ondorengo laukian:

Eskaria egin zuten G-GKEak Aurkeztutako proiektuak	Eskatutakoa, guztira	Aurrekontua, guztira	Aukeratutako proiektuak	Emandakoa, guztira
7 <sup>3</sup>	686.701,32 €	350.000 €	4	331.023,81 €

---

<sup>3</sup> Eskaria egin zuen G-GKEetako batek ez zituen deialdiko baldintzak betetzen, proiektu bat baztertu egin zen eta hirugarren kasuan ez ezen onartu eskaria egin zuen erakundeak diru laguntza justifikatzeko proposatutako sistema.

Kodea	Proiektua	Herrialdea	G-GKE	Euroak
03-E-01-BUR	Cishemere-ko eremuan errefuxiatutako kongoarrentzako oinarrizko hezkuntza	Burundi	Alboan	70.681,36 €
3 urtetik 12ra bitarteko haurrentzako hezkuntza sistema abian jartzea, Burundin errefuxiatutako kongoarren kanpamentuetan, errefuxiatuen arteko maisu-maistrekina, aldez aurretik prestakuntza emanda, bereziki sexu gehiegikerien prebentzioaren alorrean.				
03-E-02-CDM	Gerra osteko oinarrizko hezkuntzari laguntza ematea	Boli Kosta	SERSO San Viator	78.945,80 €
Hiru ikastetxeren funtzionamendua eta ikasleentzako janaria, gerrak gogor eragindako hiru eskualdetan: Bouaké, Ferké eta Abidjan (azken horretan lekuz aldatzearen ondorioz).				
03-E-03-RDC	Nyunzu-ko (Katanga probintzia) osasun barrutiko populazioaren nutrizio egoera orokorra hobetzea	Kongoko Errepublika Demokratikoa	Médicos Sin Fronteras	120.000,00 €
Nyunzu-ko ospitaleko Nutrizio Zentroaren funtzionamendua, ongi zehaztutako bi protokolori jarraiki: Nutrizio Programa Terapeutikoa eta Nutrizio Programa Osagarria ("errazio lehorra"), heriotzak eta desnutrizioagatiko erikortasuna murrizteko, larrialdiko egoera konplexuan (liskar ugari, lokalak, nazionalak eta nazioartekoak, elkarrekin nahasiak), Katangako eskualdean.				
03-E-04-SUD	Lehen hezkuntza hedatzea, lekuz aldatuen Nimule-ko eremuan	Sudan	Manos Unidas	61.396,65 €
Lehen hezkuntza bermatzea (nagusiki 6 urtetik 17ra bitarteko haurrena) gerra dela-eta lekuz aldatuen kanpamentuan, liskararen muga dagoen eremuan (Uganda iparraldea).				

## 2.2.- HITZARMENAK

### • 2.2.1.- Saharako herriarekiko lankidetzaren eta elkartasuna

Arabako RASDaren Lagunen Elkartearekin 1995ean izenpetutako hitzarmena errefuxiatuta bizi direnen egoeraren eta Mendebaldeko Saharan bake prozesuak dituen gorabeheren testuinguru soziopolitikoaren baitan ulertu beharra dago. "Ez gerra, ez bake" testuinguruan, bake prozesua geldirik, nolabaiteko bizimodu duinari eusten lagundu nahi die Saharako programak kanpamentuetan bizi diren errefuxiatuei, Frente Polisarioak eta Marokok 1997an sinatutako Akordioaren haritik gatazka noiz konponduko.

Testuinguru horretan, hauek izan ziren 2003ko proiektuak:

Kodea	Proiektua	Diru-kopurua
03-SA-01	Saharako herriarekiko osasunaren alorreko lankidetzari buruzko III. jardunaldiak	28.000,00 €
03-SA-02	Erizaintzaren irakaskuntzarako laguntza, errefuxiatu kanpamentuetan	18.100,00 €
03-SA-03	Informazio azpiegiturarako laguntza	44.600,00 €
03-SA-04	Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari laguntzea	11.800,00 €
03-SA-05	Sentsibilizazioa (emakumeen jardunaldia)	9.400,00 €
03-SA-06	Larrialdiko janari-laguntza	57.000,00 €
	Zeharkako kostuak (% 6,17)	11.100,00 €
	<b>GUZTIRA</b>	<b>180.000,00 €</b>

- **03-SA-01:** Gasteizen –abenduaren 12, 13 eta 14an– egin ziren Saharako herriarekiko osasunaren alorreko lankidetzari buruzko III. jardunaldiak antolatzeke laguntza. G-GKEek Tinduf-eko kanpamentuetan, osasunaren alorrean, bideratzen duten lankidetzak koordinatu eta hobetzeko oso baliagarri izan ziren jardunaldiak.
- **03-SA-02:** Programa teorikoa berrikusi, Lehen Ikasturterako irakaskuntza-materialak taxutu eta irakasleak material berriak erabiltzeko prestatzea. Irakasleei ostatu emateko funtsezko altzariak hornitzea.
- **03-SA-03:** Kanpamentuetako egungo telefonogunea ordeztu eta langile sahararrak hori onik zaintzeko prestatzea. Gasteizko Udaletik kendutako ordenagailu sorta bat kanpamentuetara eramatea.
- **03-SA-04:** Eguzki energiaren alorrean gaitzeko ikastaroa, Dajlako *wilaya*-ko Emakumeen Prestakuntzarako Zentroko emakumeei zuzendua, praktikaldia barne –eskolako argiteria sistema instalatzea–, eta parte hartzen duten emakumeei erreminta sorta bana ematea, lortutako prestakuntzaz baliatzerik izan dezaten.
- **03-SA-05:** Gazuani institutuko mekanika, elektrizitate, arotzeria, soldatze eta informatika lantegiak tresneriaz, lehengaiz eta liburuz hornitzea, normaltasunez funtzionatzerik izan dezaten, eta hartara gazte errefuxiatuei beren buruak prestatzeko aukera eskaini diezaieten.
- **03-SA-06:** Saharako Emakumeen Batasun Nazionalaren zuzendaritzako emakumeen eta Nikaragua, Guatemala eta El Salvadorreko antolakundeetako lau emakumeren arteko bilera. Bi hitzaldi publiko eta lantegi bat, Gasteizko G-GKE eta emakume elkarteetako emakumeen parte hartzearekin. Hika-ateneoa kultur elkartearekin batera antolatutako jarduera.
- **03-SA-07:** Janari-laguntza emateko proiektua: behar-beharrezko produktuak (azukrea, olioak, dilistak eta arrosa) erostea Aljerian eta errefuxiatuen kanpamentuetara eraman eta banatzea.

• **2.2.2.- Osasun proiektua, Cogon.**

Arabako Foru Aldundiarekin eta Asociación Africanista Manuel Iradier elkartearekin izenpetutako hitzarmenak helburu hauxe zuen: osasunaren alorrean laguntzeko programa bat bideratzea, 2001-2003 urteetan, Cogoko barrutian.

Hortaz, hainbat urterako proiektua da, logikaren bidezko metodologia baliatuz tentu handiz taxutua, CIDOBen laguntzari esker; izan ere, Gasteizko G-GKE poliki-poliki proiektua bertako Osasun eta Ongizate Ministerioaren (MINSAB) esku uzten joatea da azken asmoa, kontuan izanik petroliotik lortzen dituen baliabideak arlo sozialetan inbertitzen joan beharko lukeela Ekuatore Gineak.

Ospitaleak eta oinarrizko osasun sistemak 2003. urtearen bukaera arte funtzionatzen jarraitzeko aukera eskaini zuen Arabako bi erakundeek emandako diru laguntzak.

Kodea	Proiektua	2003
03-KO-01-GEC	Osasun proiektua, Cogon	59.800,70 €



• **2.2.3.- Euskal Fondoarekiko hitzarmena.**

Euskal Fondoa - *Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes* 1996an sortu zen, garapenerako lankidetzaren alorrean ziharduten euskal toki-erakundeak koordinatzeko plataforma gisa. Hartara, zenbait proiektu eta programari batera ekiteko eta horiek kudeatzeko aukera ematen du. Gaur egun 68 udal daude Euskal Fondoari atxikita; besteak beste, Euskal Herriko hiru hiriburuetakoak, baita Arabako Foru Aldundia ere.

1998az geroztik, Gasteizko Udalaren eta Euskal Fondoaren arteko harremanak hitzarmen orokor baten bidez araututa daude, zeinen ildotik urtez urte plan eragile bat taxutzen baita, bideratuko diren jarduera eta proiektuak nahiz bakoitzak egingo dituen ekarpenak finkatzeko.

Ondoko jarduerak bildu zituen 2003ko programak:

<b>03-EF-01-GUA:</b> Kale zolatu bat egitea, Fray Bartolomé de la Casas-en
Fray Bartolomé de las Casas-eko udalarekin kamioak hobetzeko hasitako lankidetzaren jarraipena izan zen proiektua. Herriko kale nagusiko beste zati bat zolatzeari zuzentzeko helburu. 9 m zabal da errepidea, eta 1.000 m inguruko zatia zolatzeari aurreikusten zuten udalak.

<b>03-EF-02-NIC:</b> San Carlos gotorlekua eraberritzea (ekipamendua)
Garai bateko San Carlos gotorlekuaren berrikuntza bukatzeko proiektua, Euskal Fondoak eta, bereziki, Gasteizko Udalak 2000. urteaz geroztik emandako diruarekin eraikitako zentro soziokulturala eta museoa hornitzeko aukera eman baitzuen. Horrekin batera, bertako toki erakundeko arduradun batek egonaldi bat egin zuen Gasteizko Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzuan, gertueneko udal ekipamenduen kudeaketa eta programazioaren alorreko esperientziaren berri jasotzeko.

<b>03-EF-03-CUB:</b> Adinekoentzako sorospena, Habana Zaharrean (Giza Garapen Lokalerako Programa, Kuban)
Proiektuak, dagoeneko hasia baitago, bi osagai ditu: - Habanako alde zaharreko eraikin bat eraberritu eta zaharrentzako zainpeko apartamentuak egitea bertan. Dagoeneko hasia dago eraikuntza, arkitektura-proiektua Gasteizko eta Habanako arkitekto eta hirugarren adinerako teknikariek zehatz-mehatz ikuskatu ondoren. - Adinekoen sorospenean espezializatutako langileak prestatzeko programa. 2003ko apirilean ikastaro bat eman zuten Gasteizko Udaleko Hirugarren Adinekoen Zerbitzuko teknikari batek Habanan: <i>“Capacitación de formadores/as de Auxiliar de Geriatria de atención domiciliaria”</i> . Hirugarren Adinekoen Zerbitzuaren eta homologo kubatarren artean diseinatu zen 60 orduko prestakuntza-ikastaro hori.

<b>03-EF-04-CUB:</b> Habana 624. eraikina
“Zainpeko apartamentuak” egiteko plana aztertu zuten arkitektoen gomendioaren ondorioz sortutako proiektua. Izan ere, 620. eraikineko hirugarren solairua ere horretarako erabiltzea gomendatu zutelarik, bertan bizi ziren familiak lekuz aldatu beharra egokitu zen, eta, beraz, ondoko eraikina (Habana 624) eraberritu beharra.

<b>03-EF-05:</b> Lankidetzaren proiektuetan praktikaldiak egiteko programa (EHU)
Lehendik izandako esperientziak aintzat harturik, karrera bukaeran lankidetzaren proiektuetan praktikaldiak egiteko programa taxutu zuten EHUko Lankidetzaren Bulegoak.

Bereziki, Arabako campuseko Gizarte Laneko Eskolak eta Irakasle Eskolak parte hartuko dute programa horretan.

**03-EF-06: "Hiru mendeetako aurpegiak" erakusketa**

Adinekoentzako sorospen proiektuarekin du zerikusia erakusketa honek, eta Kubako PDHLaren baitan sortua da. XIX. mendean jaiotako 20 pertsonaren argazki-erretiratuak dira, Alejandro Ramírez Andersson argazkilari guatemalarrak 2001. urtean eginak.

Hauxe izan zen 2003ko programa burutzeko Gasteizko Udalak Euskal Fondoari egindako ekarpena:

Kodea	Proiektua	Ekarpena
03-EF-01-GUA	Kale zolatu bat egitea, Fray Bartolomé de la Casas-en	44.777,30 €
03-EF-02-NIC	San Carlos gotorlekua eraberritzea (ekipamendua)	27.006,00 €
03-EF-03-CUB	Adinekoentzako sorospena, Habana Zaharrea	90.000,00 €
03-EF-04-CUB	Habana 624 eraikina	31.500,00 €
03-EF-05	Lankidetzako proiektuetan praktikaldiak egiteko programa (EHU)	5.000,00 €
03-EF-06	"Hiru mendeetako aurpegiak" erakusketa	1.000,00 €
<b>Proiektuetarako ekarpena, guztira:</b>		<b>199.283,30 €</b>
Bazkide kuota		9.916,70 €
<b>Ekarpena, guztira, 2003an:</b>		<b>209.200,00 €</b>

• **2.2.4.- Nezapako Udaleko alkatetzarekiko hitzarmena (2003-2005)**

2002. urtean egin zelarik aurreko hitzarmenaren (1998-2000) ebaluazioa, hiru urterako (2003-2005) beste hitzarmen bat sinatu zuten Gasteizko Udalak eta Najapako alkatetzak.

Ezaugarri hauek ditu hitzarmen horrek:

- hiru urteko iraupena.
- sektore-esparru mugatua: ura eta saneamendua, ingurumena eta lurralde antolakuntza.
- zehaztutako aldi egin beharreko proiektuak (saneamendu proiektu bat urtean, ingurumenaren alorreko proiektua aldi osoan zehar eta prestakuntzarako eta erakundeak sendotzeko ekintza osagarriak).
- Gasteizko Udalaren urteroko diru-ekarpenak, 120.000 €-tik 150.000ra bitartekoak.
- Gasteizko Udalak laguntza teknikoa emateko aukera, bereziki Gasteizko Udal Urak, SAK (AMVISA) eta Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak.

Ondorengo ekintza eta proiektuak biltzen zituen bere baitan 2003ko programak:

**03-NE-01-ELS: Estolderia Aldea de Mercedes herrian**

Aldea de Mercedes herrian estolderia zerbitzua jartzea, bertan bizi diren 120 familiek (720 pertsona inguru) ez baitzuten zerbitzu hori.

**03-NE-02-ELS:** Baliabide naturalak babestu eta basoak birlandatzea

Nejapako muinoetako 15 lur sail fruitu-arbolez eta baso zuhaitzez birlandatu eta dibertsifikatzea, basogintza sustatzeaz batera. Inguruetako herritar, ikasle eta kooperatibei ingurumen hezkuntza eta prestakuntza eskaini eta antolakuntzaren alorrean laguntzea, eta ingurua zaintzeko komiteak sortzea.

Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak laguntza teknikoa eta prestakuntza eskaintzeko zenbait ekintza bideratzea zekarren berekin proiektuak. Apirilean egin zen lehen misio teknikoa.

**03-NE-03-ELS:** Lurralde antolakuntzarako laguntza<sup>4</sup>

Nejapako Udalerriko Lurralde Antolakuntzarako Plana 2003an onartzekoa zen, eta Sailari soldatak ordaintzeko nahiz planaren zabalkunderako jardueretarako laguntza ematea aurreikusten zen.

Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak laguntza teknikoa eta prestakuntza eskaintzeko zenbait ekintza bideratzea zekarren berekin proiektuak.

**03-NE-04-ELS:** Udal langileak prestatu eta gaitzea

- Lankidetzaren proiektuen kudeaketari buruzko ikastaro bat egitea, Proiektuen Ataleko langileei eta proiektuetan esku hartzen duten gainerako teknikariei zuzendua, bertako aholkulari talde batek 2003ko azaroan Najapan ematekoa.

- Nejapako Udaleko langileek praktikaldiak egitea Gasteizen.

Lehenengo praktikaldia edateko uraren alorreko proiektu eta zerbitzuen arduradun tekniko batek egin zuen AMVISAn, irailean. Guatemalako hidraulikako bi ingeniari ere parte hartu zuten prestakuntza horretan. Sololáko (Guatemala) Departamentuko Lankidetzaren Espainiarraren Udal Programarekin zerikusia zutenez eta bai Gasteizko Udala bai AMVISA lehendik laguntza eskainiak ziren departamentu horretako udalerririk urez hornitzeko proiektuen baitan.

Bestalde, Nejapako ingurumenaren alorreko koordinatzaileak Ingurugiro Gaietarako Ikastegian egin zuen praktikaldia abenduan, eta hiri plangintzaren arduradunak, berriz, GISei buruzko prestakuntza jaso zuen, eta Gasteizen nahiz Euskal Herriko beste udalerririk batzuetan (Amurrio eta Deba) hiri- eta lurralde-antolakuntzaren kudeaketaren alorrean izandako esperientzien berri jasotzeko programa osagarrian parte hartu.

Hauek izan ziren Nejapako alkatetzarekiko lankidetzaren hitzarmenaren baitako 2003ko programan egindako ekarpenak:

Nejapako udalerrirako diru ekarpena		
KODEA	2003KO PROIEKTUAK	EUROAK
03-NE-01-ELS	Estolderia Aldea de Mercedes herrian	95.555,36 €
03-NE-02-ELS	Baliabide naturalak babestu eta basoak birlandatzea	30.244,64 €
03-NE-03-ELS	Lurralde antolakuntzarako laguntza	8.000,00 €
03-NE-04-ELS	Udal langileak prestatu eta gaitzea	5.000,00 €
03-NE-05-ELS	Hiriguneko egungo estolderia sistema ordeztzeko azterketa teknikoa	1.200,00 €

<sup>4</sup> Ikus "Ebaluazioak" atala, oroit-idazki honetan bertan.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren diru ekarpena		
03-NE-06-ELS	Nejapan egindako misio teknikoak eta Gasteizko prestakuntza-jarduerak	3.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>143.000,00 €</b>

### **3.- SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA**

Garapenerako laguntzaren alorreko jarduerak abian jarri zituenez geroztik, beti uste izan du Gasteizko Udalak laguntza horren jomuga nagusietako bat elkartasunaren kultura sustatzeak izan behar duela. Horrenbestez, G-GKEek egiten duten sentsibilizazio lanerako ere ematen du laguntza, horretarako berariaz atondutako diru laguntza deialdien bidez nahiz hitzarmenen bidez.

Diru laguntza deialdi publikoez eta hitzarmenez gain, ondoko jarduerak bideratu ziren sentsibilizazioaren alorrean.

- Artikuluak argitaratu ziren Udal Kazetan.
- Materialen zabalkundea.
- Jostailuak biltzeko urteroko kanpainan lagundu zen.

#### **3.1.- DIRU LAGUNTZA DEIALDIA: NAZIOARTEKO ELKARTASUNERAKO SENTSIBILIZATZEA, GASTEIZEN**

Hauxe du helburu nagusia deialdi horrek: bai gizatalde jakinen artean, bai Gasteizko herritar ororen artean, garatze bidean dauden herrialdeekiko elkartasuna sustatzea. Horretarako, hainbat ekintza laguntzen dira diruz: informatze nahiz sentsibilizatze jarduerak, ekitaldien antolakuntza, argitalpenak eta abar.

Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntzaren alorreko lanari buruz Lankidetzarako Kontseiluan egindako gogoeta saioen ondorioz, berrikusi egin ziren deialdiaren oinarriak 2003. urtearen hasieran, bideratu beharreko ekintzak baloratzeko orduan irizpide objektiboagoak izatearren.

Kontseiluak 2000. urtean taxututako deialdiaren egitura ez aldatzea erabaki zen, hau da, bi atal desberdin bereizten jarraitzea: A atala, bi G-GKEek edo gehiagok batera aurkeztutako proiektuei zuzendua, eta B atala, berriz, banaka aurkeztutakoei zuzendua, baina, berrikuntza gisa, baremazio sistema bana finkatu zen bi ataletarako, eta hainbat irizpide ezarri ziren horietan, sailez sail, diru laguntzak emateko orduan objektibotasun eta gardentasun handiagoa lortzearren. Bestalde, irizpide zehatz horiek funtzio "didaktiko" bat betetzea ere nahi izan zen, programatutako jardueren arrakastan eragina duten faktoreez jabetzen laguntzen duten aldetik.

Deialdi horretara bideratutako diru-kopurua 150.000,00 €-koa izan zen, eta honela banatu zen: 38.920,00 € A atalerako, eta 111.080,00 € B atalerako.

Taula: Sentsibilizazio deialdiko datu orokorrak

Aurrekontua	Aurkeztutako proiektu kopurua		Onartutako proiektu kopurua		Eskatutako kopurua, guztira		Emandako kopurua, guztira	
	A atala	B atala	A atala	B atala	A atala	B atala	A atala	B atala
150.000,00 €	3	15	3	13	39.026,19 €	116.638,42 €	38.920,00 €	111.080,00 €

## Sentsibilizazio deialdiko proiektuak

### A atala

**Kodea:** 03-SSA-01.

**Proiektua:** “Aupa! Kómera!, África, Región de los Grandes Lagos” erakusketa. Bigarren partea.

**Eskatzailea:** Medicus Mundi (eta Umoya).

**Azalpena:** Erakusketa didaktikoa, eskualde horretako herrialdeetako etorkinek bideratua, ikasleei zuzendua, Afrikako inguru horretako egoeraren berri bertatik bertara jaso dezaten.

**Diru-kopurua:** 4.930,00 €

**Kodea:** 03-SSA-02.

**Proiektua:** “Vive la riqueza de la diversidad”. 2003-2004 ikasturtea.

**Eskatzailea:** Mugarik Gabe (eta SOS Arrazakeria).

**Azalpena:** Kulturen arteko hezkuntzarako aretoa eta kulturen arteko lantegiak ikastetxeetan, beste kulturetako pertsonenganako begirune eta elkartasunezko jarrerak sustatzeko.

**Diru-kopurua:** 17.000,00 €

**Kodea:** 03-SSA-03.

**Proiektua:** “De cara a Colombia”.

**Eskatzailea:** Proclade (eta SETEM, PTM-HMB, Mugarik Gabe, PBI eta BACHUE).

**Azalpena:** Hainbat jarduera, Kolonbiako arazoen berri emateko, giza eskubideen zapalkuntza zigorrik jaso gabe gera dadin ekiditeko eta herrialde hartako antolakundeekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa sendotzeko atonduak.

**Diru-kopurua:** 16.990,00 €

### B atala

**Kodea:** 03-SSB-01.

**Proiektua:** “Asia meridional, ¿unidad?, ¿diversidad?”

**Eskatzailea:** SETEM-Hego Haizea.

**Azalpena:** Gizarte mugimenduen ikuspegitik azpi-kontinente hindustandarreko politikaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren nolabaiteko panorama bat ematen duen ikastaroa.

**Diru-kopurua:** 4.850,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-02.

**Proiektua:** Jesús Abaden bisita.

**Eskatzailea:** SETEM-Hego Haizea.

**Azalpena:** Hitzaldia, diapositiba proiektzioarekin, hamar urtez, batetik bestera, bere herrialdeko gatazka armatuaren biktimak erretratatzan ibili den argazkilari kolonbiarraren eskutik.

**Diru-kopurua:** 680,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-03.

**Proiektua:** Argazkiak/Zinema eta Lankidetzak IX. Erakustaldia: Garapena bultzatzen.

**Eskatzailea:** Mugarik Gabe.

**Azalpena:** Erakustaldi berri bat eta ikastaroa, oraingoan generoaren inguruan.

**Diru-kopurua:** 15.000,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-04.

**Proiektua:** ACNUR-UNHCRen "Errefuxiatuak" aldizkaria euskaraz argitaratu eta banatzea.

**Eskatzailea:** Euskalaid-ACNUR.

**Azalpena:** Errefuxiatuen egoerari eta giza eskubideei buruz diharduen aldizkari hori euskaraz argitaratu eta banatzea.

**Diru-kopurua:** 6.000,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-05.

**Proiektua:** Oporrak bakean.

**Eskatzailea:** Amurrioko RASDaren Lagunak

**Azalpena:** Saharako hainbat haur Gasteizko haurrekin bizitzea, udako hilabeteetan.

**Diru-kopurua:** 12.000,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-06.

**Proiektua:** "A través de ellos. Seis infancias quebradas."

**Eskatzailea:** Euskalaid-ACNUR.

**Azalpena:** 250 m<sup>2</sup>-ko karpa batean instalatutako erakusketa, errefuxiatu zelai bateko bizimoduaren berri ematen duena, Albaniako errefuxiatu kosovoarrak hartuta.

**Diru-kopurua:** 6.000,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-07.

**Proiektua:** Emakumeak herrialdea eraikitzen.

**Eskatzailea:** Hika-ateneo.

**Azalpena:** Saharako Emakumeen Batasun Nazionaleko emakumeen eta Latinoamerikako antolakundeetako emakume esperientziadunen arteko jardunaldia, UNMSaren bilakaera sendotzeko asmoz.  
**Diru-kopurua:** 8.370,00 €

---

**Kodea:** 02-SSB-08.  
**Proiektua:** Globalizazioari, Guatemalari eta Kubari buruzko hiru azterlan argitaratzeko proposamena (Bakeaz liburuxken bilduman).  
**Eskatzailea:** Bakeaz.  
**Azalpena:** Azterlan horiek Bakeaz liburuxken bilduman argitaratzea.  
**Diru-kopurua:** 8.840,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-09.  
**Proiektua:** Errumania Gasteizen.  
**Eskatzailea:** COMPARTIR.  
**Azalpena:** Jolas giroko jai-egun bat antolatzea, Foru plazan, Gasteiztarrei Errumaniako errealitate soziokulturalaren berri emateko eta, orobat, bertan bizi duten egoera ekonomiko zailaz ohartarazteko.  
**Diru-kopurua:** 2.495,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-10.  
**Proiektua:** Har dezagun bidezko merkataritzako kafea.  
**Eskatzailea:** SETEM-Hego Haizea.  
**Azalpena:** Gasteiztarrek bidezko merkataritzara ohitzeko kanpainarekin jarraitzea. Oraingoan honako hauei zuzendua joango da: irakasleei – unibertsitateko nahiz ikastetxeetako–, erakunde publikoetako funtzionarioei eta jende orori.  
**Diru-kopurua:** 16.000,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-11.  
**Proiektua:** Guatemala, giza eskubideak, zigorgabetasuna eta erantzukizunak, genozidioa dela eta.  
**Eskatzailea:** Mugen Gaietik.  
**Azalpena:** Guatemalako eta Argentinako legelari banak Guatemalako genozidioa dela eta erantzukizunak eskatzeko txosten bana egitea.  
**Diru-kopurua:** 3.300,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-12.  
**Proiektua:** Jakin eta Eragin.  
**Eskatzailea:** SETEM-Hego Haizea.  
**Azalpena:** Hainbat ikastaro eta hitzaldi egitea, nazioarteko harremanen errealitateaz jabearazteko eta jendea G-GKEetan parte hartzera bultzatzeko.  
**Diru-kopurua:** 15.350,00 €

---

**Kodea:** 03-SSB-13.  
**Proiektua:** “DESCifrando realidades, DESCubriendo derechos”.  
**Eskatzailea:** Hirugarren Mundua ta Bakea  
**Azalpena:** Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturei buruzko erakusketa, antzerkia, bideoak, hitzaldiak, argitalpenak eta bestelako jarduerak.



### **3.2.- LANKIDETZA-HITZARMENAK**

- **3.2.1.- SETEM-HEGO HAIZEA**rekiko hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko

Bere jardueraren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko erabakia hartua duelarik Gasteizko Udalak, bidezko merkataritzako kafea erabil zezatela eskatu zien edari beroak saltzeko makinak jartzen dituzten enpresei “*gizarte etxe eta kirol instalazioetan edari hotzak, beroak eta bestelako produktuak saltzeko makinak jarri eta ustiatzeko lizentziak emateko*” egindako azken lehiaketa publikoan. Hartara, kafea nongoa den adierazteaz gain, argi eta garbi iragarri beharra daukate, makinetan bertan, “Bidezko Merkataritza”koa dela.

Orobat adierazten zen lehiaketa horretako baldintza teknikoen orrietan ezen, kafe horren benekotasuna bermatzeko, aldian aldiko kontrolak egiten utzi beharko zuela esleipena jasotzen zuen enpresak, bai Gasteizko Udaleko zerbitzu teknikoek zuzenean egiten zituztelarik, bai bidezko merkataritzaren alorrean diharduen G-GKEren batek egiten zituelarik, aldezturik Gasteizko Udalarekin lankidetzaren hitzarmena sinatuta.

Hain zuzen ere, urtebeterako hitzarmena egin zelarik Setem-Hego Haizearekin –epe hori luzatzeko aukera zabalik utzita egin ere–, kontrol hori nola egin behar zen zehaztea izan zen eginkizun nagusia, eta, bidenabar, Gasteizko Udalaren jardura esparruan bidezko merkataritza sustatu eta ezartzera bideratutako bestelako jarduerak adostea.

- **3.2.2.- EAEko G-GKEen Koordinatzailea (Arabako Ordezkaritza), Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena.**

Aurreko urtean bezalaxe, lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zen G-GKEen Koordinatzailearen, aldundiaren eta udalaren artean, garapenerako lankidetzaren alorrean herritarrak sentsibilizatzeko hainbat jardura bideratu ahal izateko.

Hiru erakundearen arteko urtebeteko hitzarmen horren baitan, jardura zehatz hauek finkatu ziren:

- “Aldatu jarrera!” sentsibilizazio kanpainako jarduerak, Gasteizko Adinduentzako Zentro Soziokulturaletan.
- Marokoko emakumeen argazkien erakusketaren erakustaldia, Araban.
- “Aldatu jarrera!” sentsibilizazio kanpainaren baitan, Arabako koadriletako elkartasun azoketako jardueretarako laguntza.
- “Aldatu jarrera!” sentsibilizazio kanpainaren baitan, Arabako emakume elkarteekin batera bideratzeko jarduerak.
- G-GKEen Koordinatzaileak kudeatzen duen web-orria hobetu eta eguneratua edukitzeko jarduerak, Araban programatzen diren sentsibilizazio jarduerak koordinatu eta zabaltzeko nahiz herritarrei informazioa helarazteko.

G-GKEen Koordinatzaileak kudeatzen duen web-orria hobetu eta eguneratua edukitzeko jarduerak finantzatu ziren udalaren ekarpenarekin, baita “Aldatu jarrera!”

kanpainaren baitan Gasteizko Adinduentzako Zentro Soziokulturaletan egindakoak ere. Izan ere, zentro horietan badute duela zenbait urte adinekoen beren ekimenez sortutako programa bat, Iparra eta Hegoaren arteko aldeak jorratzen dituen, "Elkartasunerako ez dago adinik" izenburukoa. G-GKE batek kudeatutako proiektu bat aukeratzen du urtero "elkartasun taldeak", eta dirua biltzen dute horretarako, baita lanaren berri adineko beste pertsona batzuei eman ere. 2003an IX. kanpaina egin zen.

Udalaren diru-ekarpena, hitzarmen horren baitan, 11.787,31 €-koa izan zen.

- **3.2.3.- EAEko G-GKEen Koordinatzailearekiko (Arabako ordezkari) hitzarmena: "Egin bira lurberari" programa (epe motzera).**

2002. urtean, Lankidetzarako Kontseiluaren baitan, Garapenerako hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren inguruan burututako gogoeta prozesuaren funtsezko ondorioetako bat hauxe izan zen: sentsibilizazio jardueren arloan prestakuntza beharra zegoela. Eskari horri erantzun eta, aldi berean, G-GKEen arteko elkarlana bultzatzeko, gasteiztarrei zuzendutako Sentsibilizazio Programa bateratu bat taxutzeko proposamena egin zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, praktikan ikasteko prestakuntza eta ikaskuntza prozesu gisa planteatzen zelarik.

G-GKEekin egin zen lehenengo bileran "globalizazioa" aukeratu zen gaitzat. Hortik aurrera, deialdi bat egin zen, G-GKEek programan parte hartzeko zer nolako interesa zuten jakiteko, eta hogeita hiru izan ziren parte hartzeko prest agertu zirenak:

- |   |                                      |
|---|--------------------------------------|
| 1.- Euskadiko G-GKEen koordinatzailea     |                                      |
| 2.- ADECO                                 | 13.- Manos Unidas                    |
| 3.- ADIPE-ARABA                           | 14.- Médicos Sin Fronteras           |
| 4.- Acción VERAPAZ Euskadi                | 15.- Medicus Mundi                   |
| 5.- Asociación Africanista Manuel Iradier | 16.- Euskal elizbarrutietako misioak |
| 6.- RASDaren Lagunen Elkarte              | 17.- Mugarik Gabe                    |
| 7.- Arabako Gurutze Gorria                | 18.- Mugen Gainetik.                 |
| 8.- ADSIS fundazioa                       | 19.- PROCLADE.                       |
| 9.- Paz y Solidaridad fundazioa           | 20.- SETEM-Hego Haizea.              |
| 10.- HEGOA.                               | 21.- SERSO Euskalherria              |
| 11.- Hirugarren Mundua ta Bakea           | 22.- Tierra de Hombres               |
| 12.- INTERMON OXFAM                       | 23.- UNICEF Euskal Herria            |

Parte hartu zuten G-GKE guztien artean Batzorde Iraunkor bat eratu zuten, eta Euskal Autonomia Erkidegoko G-GKEen Koordinatzailearen Arabako ordezkari, guztiak ordezkatzuz, programa koordinatu eta kudeatzeaz arduratzea erabaki zuten, Batzorde Kudeatzaile bihurturik proiektu bat aurkez ziezaien Garapenean Laguntzeko Zerbitzuari, jardueren berri zehatza emanez.

Programari "Egin bira lurberari" izenburua ematea erabaki zen, eta bi fasetan egituratu zen: epe motzeko fasea, 2003ko apirilaren 4tik uztailaren 31ra artekoa, eta epe luzeagoko fasea, aurreagorako aurreikusia.

Lehenengo fasean jardura hauek burutu ziren: hitzaldi bat, Rigoberta Menchú Bakearen Nobel Sariak emana, "Derechos Humanos y Globalización" izenburupean; prestakuntza jardunaldiak, Hegoaren eskutik, eta kale ekintza, 23 G-GKEen parte-hartzearekin, 2003ko ekainaren 13 eta 14an. Hain zuzen ere, erakunde horietako 120tik gora boluntariok parte hartu zuten, eta programatu ziren jardura ugarien artean aipatzekoak dira gaikako zazpi standak, G-GKEen hainbat kanpainatako materialak

biltzen zituztenak, elkartasunezko jolasen zirkuitua, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat prestatua, dokumentalen proiektzioa eta Hegoko musikak bildu zituzten kontzertuak.

2003ko irailean fase horren ebaluazioa egin zen, eta, bertatik ateratako ondorioak aintzat hartuta, aurreikusitako hurrengo faseari –epe luzeagoko fasea– ekin zitzaion.

Udalaren diru-ekarpena, hitzarmen horretan baitako epe motzeko faserako, 25.000,00 €-koa izan zen.

- **3.2.4.- EAEko G-GKEen Koordinatzailea (Arabako Ordezkaritza) eta SETEM-HEGO HAIZEArekiko hitzarmena. “Egin bira lurbirari” programa (epe ertain nahiz luzera).**

2003ko urriaren lehenean berriro bildu zen “Egin bira lurbirari” programaren Batzorde Sustatzailea, konpromisoak berritu eta epe ertain nahiz luzerako fasea programatzeko. Fase horren barruan, lehenik eta behin identifikazio etapa bat izango dela erabaki zen, eta jasotzaile izan daitezkeen hainbat jende-multzorekin harremanetan jartzea. Hain zuzen ere, hauek aukeratu ziren: etorkinak, sindikatuak, kontsumitzaile elkarteak eta merkataria, adinekoak eta gazte elkarteak. Horien erantzunaren arabera, metodologia jakin bat finkatuko da, beren interes eta igurikimenak aintzat hartuta. Identifikazio etaparen ondoren, bizpahiru sektore baino ez dira geratuko, eta horietan lan egingo da. Orobat, parte hartzen duten G-GKEei zuzendutako prestakuntza jarduerak egiteko asmoa ere badago.

G-GKE hauek osatzen dute fase honetako Batzorde Sustatzailea:

- |   |                                      |
|---|--------------------------------------|
| 1.- Euskadiko G-GKEen koordinatzailea     | 10.- INTERMON OXFAM                  |
| 2.- SETEM-Hego Haizea.                    | 11.- Medicus Mundi                   |
| 3.- ADECO                                 | 12.- Euskal elizbarrutietako misioak |
| 4.- ADIPE-ARABA                           | 13.- Mugarik Gabe                    |
| 5.- Asociación Africanista Manuel Iradier | 14.- Mugen Gainetik.                 |
| 6.- RASDaren Lagunen Elkartea             | 15.- PROCLADE.                       |
| 7.- ADSIS fundazioa                       | 16.- SERSO Euskalherria              |
| 8.- Paz y Solidaridad fundazioa           | 17.- Tierra de Hombres               |
| 9.- Hirugarren Mundua ta Bakea            | 18.- UNICEF Euskal Herria            |

G-GKEen Koordinatzailearekin batera beste G-GKE batek ere Batzorde Kudeatzaileen parte hartzea proposatu zen. Zenbait hartu-emanen ondoren, G-GKEak berak onartu eta Batzorde Sustatzaileak berretsi ondoren, SETEM HEGO HAIZEA izan zen aukeratua.

G-GKEen Koordinatzaileak eta SETEMek osatutako Batzorde Kudeatzaile horrez gain, Jarraipen Batzorde bat ere eratu zen, Koordinatzaileak, SETEMek, Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak eta Batzorde Sustatzaileko G-GKE batek edo bik osatua.

Azaroaren 5ean egindako bileran, Batzorde Sustatzaileak berretsi egin zituen programan parte hartzen duten aldeetako bakoitzaren zeregin eta egitekoak, eta orobat onartu ziren hori kudeatu eta koordinatuko duen pertsonaren ezaugarriak. Fase honen iraupenari dagokionez, 2004. urte osoan zehar garatzea erabaki zen azkenik.

Udalaren diru-ekarpena, hitzarmen horren baitan eta 2003ko aurrekontuaren kontura, 16.891,22 €-koa izan zen.

### Sentsibilizazio-hitzarmenatarako diru-ekarpenak.

SETEM-HEGO HAIZEArekiko hitzarmena	
G-GKEen Koordinatzailea eta Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmena	11.787,31 €
G-GKEen Koordinatzailearekiko hitzarmena: "Egin bira lurbarari" programa (epe motzera).	25.000,00 €
G-GKEen Koordinatzailea eta SETEM-HEGO HAIZEArekiko hitzarmena: "Egin bira lurbarari" programa (epe ertain nahiz luzera).	16.891,22 €

### 3.3.- INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak diru laguntza deialdi eta hitzarmenetatik kanpo gauzatzen dituen hainbat jarduera biltzen dira informazio eta zabalkunde alorrean; batetik, lankidetzari buruzko informazioa eman edo argitaratutako materialak zabaltzeko asmoz udalak berak zuzenean antolatzen dituenak; bestetik, berriz, diru laguntzarik eman gabe ere beste erakunde batzuek bultzatutako ekimen edo kanpainei laguntza puntuala emateko direnak.

Halaber, nolabait ere, sail honetan sar daitezke Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak G-GKEei hainbat bitarteko lortzen laguntzeko egindako kudeatze lanak:

- Udalak baztertutako tresna informatikoak eskatzen dituzten erakundeei ematea, garatze bidean dauden herrialdeetara bidal ditzaten.
- Hitzaldiak, ekitaldi publikoak, jardunaldiak eta abar egiteko aretoak eta bestelako materialak uztea.
- G-GKEei orientabidea eskaintzea, elkarteen etxeetan aretoak uzteko.
- **3.3.1.- Udal Kazetan artikulua argitaratzea.**

Garapenerako lankidetzaren alorreko jarduerekin zerikusia duten artikulua hauek argitaratu ziren Udal Kazetan 2003an:

- *"Niños saharais en Vitoria"*: "Oporrak bakean" programari buruzko informazioa (Saharako 40 haurrek gure hirian igarotzen dituzte udako hilabeteak horren bitartez). 25. Kazeta, 31. or.

- “*Recepción de Rigoberta Menchú*”: Nobel sariak Gasteizko erakundeetara egindako bisita eta “Derechos Humanos y Globalización” hitzaldia. 27. Kazeta, 11. or.
  - “*Otro Globo es posible*”: Garapenerako 23 GKEk parte hartzen duten “Egin bira lurbari” sentsibilizazio programari buruzko informazioa. 28. Kazeta, 27. or.
  - “*Recepción de niños saharauis*”. Saharako berrogei haurri harrera egiteko Gasteizko udaletxean egindako ekitaldia. 29. Kazeta, 11. or.
  - “*Niños de Bielorrusia y Sáhara*”. Harrera. 29. Kazeta, 19. or.
  - “*Juguetes para El Salvador*”. Jostailuak biltzeko kanpainari buruzko informazioa. 32. Kazeta, 7. or.
- **3.3.2.- Materialen zabalkundea.**

Gasteizko gizarte etxeetan bidezko merkataritzako kafea zabaltzeko laguntza eman zen 2003an, guztira 1.420,42 €.

Orobat eman zen laguntza ikastetxeetan bildutako liburuak eta eskola-materiala Lima eta Arequipara (Peru) bidaltzeko, guztira 397,78 €.

- **3.3.3.- Jostailuak biltzeko kanpaina.**

Azken urteetan bezalaxe, iaz ere lagundu zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak Gurutze Gorriak eta Gazteria Zerbitzuak bideratu ohi duten kanpaina horretan. Laguntzaren kostua, guztira, 3.529,88 €-koa izan zen.

### Informazio eta zabalkunde atalaren aurrekontua

Jarduera eta jardunaldietarako laguntza (aretoa, <i>catering</i> -a, interpretariak)	1.366,44 €
Umoya aldizkariaren harpidetza	240,00 €
Rigoberta Menchúren bidaia	1.984,80 €
Bidezko merkataritzako kafearen zabalkundea, gizarte etxeetan	1.420,42 €
Ikastetxeetan bildutako liburuak Perura bidaltzea	397,78 €
Jostailuak biltzeko kanpaina	3.529,88 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>8.939,32 €</b>

#### 4.- JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

Hona 2003. urtean kontratatutako jarraipen, ebaluazio eta alde zuzeneko identifikazio ekintzak:

- **4.1.- Proiektuei buruzko txostenen jarraipena.**

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egiten du hitzarmenen baitako proiektuei buruzko txostenen jarraipena, baita sentsibilizazioaren nahiz giza laguntzen alorreko proiektuen ingurukoena ere.

Sei hilean behin aurkeztu behar izaten dituzte txostenak G-GKEek (zenbaitetan urtekoak), guztientzat berberak diren arauari jarraiki, eta jarraipen-sistema horrek proiektuak zenbateraino bete diren, zer-nolako eragina izan duten eta diru laguntzak zertarako baliatu diren jakiteko aukera eskaintzen du.

Proiektuak kudeatzeko datu-biltegian sartzen dira txostenetan eskaintako datuak. Hartara, egindako jarraipenaren eta proiektuen justifikazioen ikuspegi zabala izan daiteke uneoro.

Jarraipen sistema arina dela irudi balezake ere, dezenteko lan-karga geratzen da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarentzat, giza baliabide gutxi baititu, eta munta handiko diru kopuruak kudeatzeko. Datu biltegiaren eguneratze maila zailtasun horren adierazgarri izan liteke.

- **4.2.- Deialdiara aurkeztutako proiektuen alde zuzeneko ebaluazioa.**

Hegoaren (EHUaren Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua) zerbitzuak kontratatu ziren, lankidetzaren proiektuetarako hiru deialdiara aurkeztutako proiektuak baloratzeko.

Deialdia	Kontratutako lana	Erakundea
Garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuak identifikatu eta taxutzeko 2002ko deialdia	Aurkeztutako identifikazio proposamenen balorazioa	Hegoa
Garapenean laguntzeko proiektuetarako urteroko deialdia (2003).	Aurkeztutako proiektuak baloratzea	Hegoa
Garapenean laguntzeko hainbat urterako proiektuetarako 2003ko deialdia.	Hainbat urterako deialdiaren alde zuzeneko ebaluazioa	Hegoa

- **4.3.- Nejapa udalerriko alkatetzarekiko hitzarmenaren jarraipena, bertatik bertara.**

Nejaparekiko lankidetzaren hitzarmenaren baitako 2003ko programako proiektuen jarraipena bertatik bertara egin ahal izateko, dagoeneko El Salvadorren urte dezenteko egin den Elixabete Landa kontratatu zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak. Bere zereginen artean hauek daude: hilean behin proiektua bisitatzea, horien administrazio sistema eta bertako alkatetzaren proiektuen Atalak egindako txostenak ikuskatzea eta, guztiaren buruan, balorazio txosten bat egitea Garapenean Laguntzeko Zerbitzuarentzat.

Jarraipena	Kontratutako pertsona
Nejapa udalerriko alkatetzarekiko hitzarmenaren baitako 2003ko programaren jarraipena, bertatik bertara	Elixabete Landa

• **4.4.- Craiova-n (Errumania) “Ibiltaria” proiektua burutzeko 2000. urtean sinatutako hitzarmenaren ebaluazioa.**

Danimarkako “European House” elkartearekin eta Errumaniako “Helios” fundazioarekin izenpetutako hitzarmenaren baitan Craiova-n (Errumania) burututako “Ibiltaria” proiektua (arazo psikikoak dituzten gazteak laneratu eta gizarteratzea) bertatik bertara ebaluatu eta identifikatzeko kontratua egin zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak. Solidaridad Internacional G-GKEari esleitu zitzaion lan hori, inguru horretan dituen harremanak direla-eta egoki baitzirudien, behar izanez gero proiektuari jarraipena emateko ere.

Ebaluazioaren ondorioak, ordea, aski txarrak izan ziren:

- Alde batetik, onuradun izandako gazteak laneratu eta gizarteratzeari dagokionean emaitzarik lortu dela esan badaiteke ere, ez dago esaterik proiektuan aurreikusitako jardueren ondorio direnik.
- Bestetik, oso modu mugatuan garatu dira aurreikusitako jarduerak, eta denborarekin gazteei harrera egiteko baldintzak hondatuz joan direla ematen du.
- Horrez gain, bereziki kritiko ageri dira txostengileak proiektuaren kudeaketari – alderdi administratibo nahiz ekonomikoa– dagokionez; izan ere, parte hartze urria izan dute errumaniarrek kudeaketa horretan.

Solidaridad Internacional erakundearen ustez ez dira betetzen hitzarmeneko partaideekin nahiz bertako erakunderen baten bitartez proiektuari jarraipen serioa emateko gutxieneko baldintzak.

<b>Ebaluazioa</b>	<b>Kontratutako erakundea</b>
Craiova-n (Errumania) “Ibiltaria” proiektua burutzeko hitzarmenaren ebaluazioa	Solidaridad Internacional

• **4.5.- Ertameriketako hiru proiekturen genero osagaia aztertu eta ebaluatzea.**

Kanpoko aditu bat (Itziar Lozano) kontratatu zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak 2000. urtean hainbat urterako proiektuetarako egindako deialdiaren baitan diruz lagundutako hiru proiekturen genero osagaia aztertu eta ebaluatzeko; izan ere, bete beharreko baldintza baitzen, deialdi horretan, genero ikuspegia gutxieneko neurri batean behintzat aintzat hartzea. Udalaren Berdintasunerako Planaren (1999-2003) emaitzak neurtzen lagundu nahi da, bide batez, ebaluazio horrekin.

G-GKEek bideratutako hiru proiektu aukeratu ziren, ohiko direnen artetik: bi uraren eta saneamenduaren alorrekoak eta bestea, berriz, giza asentamendu bat sortzeko proiektu bat; hortaz, genero ikuspegia “espezializatu gabeko” proiektuetan txertatzearen egungo egoeraren adierazgarri izan daitezkeela uste dugu.

<b>Kodea</b>	<b>Proiektua</b>	<b>Herrialdea</b>	<b>Diruz lagundutako G-GKE Bertako GKE</b>	<b>Diru laguntza, guztira (3-4 urte)</b>
P-04-GUA	Garapen iraunkorra, bake hitzarmenen haritik nekazariei esleitutako lurretan	Guatemala	PROCLADE CEIDEC	462.526,58 €
P-08-	Komunitatearen	Nikaragu	Paz y	343.093,55 €

NIC	antolakuntza, ura, saneamendua eta osasunaren alorreko hezkuntza, Chontales-en (II)	a	Solidaridad CARUCA	
P-09-NIC	Osasun-garapena, Río San Juan departamentuan	Nikaragua	Solidaridad Internacional ASODELCO	362.052,12 €

2004. urtearen hasieran egingo da aztertze eta ebaluatze lana, eta otsaila bukaerarako prest egongo da azken txostena.

• **4.6.- Nejapako Lurralde Antolakuntzarako Planari emandako laguntzaren ebaluazioa (Nejapako UCArekiko hitzarmena, 1999-2001)**

Gasteizko Udalak, Universidad Centroamericana José Simeón Cañas (UCA) unibertsitateak eta Nejapako (El Salvador) alkatetzak 1999-2001 aldirako izenpetutako hitzarmenaren baitan ekin ziztaion Lurralde Antolakuntzarako Planean laguntzeko proiektuari, eta Gasteizko Udalaren eta Nejapako alkatetzaren arteko hitzarmenaren baitan ere eman da horretarako laguntza.

Ez da atzerapenik falta izan proiektuan (neurri batean 2001. urtearen hasieran El Salvadorrera hondamena ekarri zuten lurrikaren ondorioz), ezta zailtasunik ere, besteak beste El Salvadorren lurralde antolakuntzaren alorrean udalek esperientziarik ez dutelako eta lurraldeari buruzko informazioa kudeatzeko teknologiak aukeratzea baliabide ekonomiko eta tekniko urriko erakunde batentzat konplexua gertatzen delako.

UCAk idatzitako "Plan de Ordenamiento Territorial de Nejapa"-ren (POTN) lehen zirriborroa Madrileko Unibertsitate Politeknikoko ETSAMeko graduatu ondoko "Cooperación en asentamientos humanos precarios" ikastaroan lagundu zuen arkitekto eta urbanista talde batek (Isabel Bravo, Felipe Colavidas eta Luis Suárez Carreño) berrikusi zuen.

Gerora, POTN onesteko nahikoa aurrerapenik egiten ez zenez, bertatik bertara ebaluazioa egiteko kontratu bat egitea erabaki zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, eta Felipe Colavidas, Julián Salas eta Luis Suárez Carreñok osatutako taldeari esleitu ziztaion.

2004. urtearen hasieran egingo da ebaluazioa, eta otsaila bukaerarako prest egongo da azken txostena.

**Ebaluazioa egiteko baliaututako aurrekontua**

Ekintza	Kontratutako erakundea	Diru-kopurua
Proiektuak identifikatzeko deialdiaren balorazioa	Hegoa	1.200,00 €
Urteroko deialdiaren alde aurreko ebaluazioa	Hegoa	2.900,00 €
Hainbat urterako deialdiaren alde aurreko ebaluazioa	Hegoa	2.625,00 €



Craiova-ko "Ibiltaria" proiektuaren ebaluazioa, identifikazioa	Solidaridad Internacional	11.653,08 €
Ertameriketako hiru proiekturen genero osagaia aztertu eta ebaluatzea	Itziar Lozano	11.000,00 €
Nejapako Antolakuntza Plana berrikustea	Isabel Bravo eta taldea	1.000,00 €
Nejapako Lurralde Antolakuntzarako Planari emandako laguntzaren ebaluazioa (Nejapako UCArekiko hitzarmena, 1999-2001)	Felipe Colavidas eta taldea	12.000,00 €
Nejapako jarraipena, bertatik bertara	Elixabete Landa	3.500,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>45.878,08 €</b>

## 5.- LANKIDETZARAKO KONTSEILUA.

Herritarrek parte-hartzeko Kontseiluak bideratutako jarduerak azaltzen ditugu atal honetan.

Urtean zehar eztabaidatu eta erabaki ziren gai nagusiak hauexek izan ziren:

- Sentsibilizazio deialdiaren oinarriak berrikusi eta aldatzeko prozesua, baremazio sistema bat ezarri zelarik.
- Giza laguntzei eta larrialdiko ekintzei buruz gogoeta egiteko proposamena, eta "Saharaz beheitiko Afrikarako gizaldekoko ekintzak" izeneko aparteko deialdiaren onespena.
- Diru laguntzen justifikazio ekonomikoa gauzatzeko sistema.

Kontseiluaren jardunari buruzko datuak:

Bileraren data	Bertaratuen kopurua	Gai kopurua
urtarrilaren 30a	21	4
martxoaren 6a	19	4
irailaren 18a	26	6
azaroaren 27a	20	5